

Atabaka

Garraitz 25 edo ondarea herriratzen

Testua: Atabaka Elkarte

Lekeitiar askok dakizuen bezela egurrezko kutxatxo bat da atabaka (arrantzaleek euren aparrijoak gordetzeko erabiltzen zuten hala-koa), hautesontzi modura erabiltzen zena.

ATABAKAk bere tapan etxea ezkerrean eta txalupa eskumaldean marraztuta zituen eta bakoitzaren ondoan zulo bana, barruko sail edo atal bakoitzari zegozkienak. Etxea "LIOR", txalupa "ITXASO", patro bakoitzak irizten zion zuloan bolatxoa sartuta erabakitzen zuten guztiok batera itxasora irten ala ez.



Atabaka

Elkartekook hainbat arrazoiengatik jo genuen izen horretara: berez, gure etnografiaren elementua delako, bai arlo materialean, bai arlo kulturean; talde batean erabakiak hartzeko moduaren adierazgarri ederra delako; eta Lekeitiokoa bertokoa delako, nahiz eta jatorrizko kutxa

Bilbon egon (oraingoz; ikusiko dugu aurrerago).

Ondarea ez da ezagutzea bakarrik; ez da erakundeak eta teknikariak bakarrik. Hor ez dago herririk, eta herria beharrezkoa da; herriaren estimu argi eta etengabe barik, ondarea hil egingo da. Begiratu, bestela, zelan daukagun Europako herririk zaharren honen ondare historiko-kulturala: guztiz bertan behera utzita. Eta hori, besteak beste, ondarea jakintsu, ikertzaile eta teknikarien gaia dela pentsatu dugulako da.

Gure sorreraren azalpen arina emateko, esan behar dugu ordura arte gutariko bakoitzak bere iritziak eta ikuspegiak zituela Lekeitioko ondareaz eta bakoitza noizean behin eta bere aldetik arduratzen zela arazoengatik. Ondorioa beti izaten zen berdina: oker egindako zerbaiten aurrean, kexa hutsean geratzen zen edo aintzat hartu gabeko eskabidean.



"ONDAREA EZ DA EZAGUTZEA BAKARRIK; DENOK PARTE HARTU BEHAR DUGU"



Baina 2011n zerbait larria gertatu zen Lekeition, gure uste apalean, eta egoera hark eraman gintuen indarrak batzera; betiere, kexak alde batera utzita, gure lana eraginkorragoa eta zuzenagoa izateko asmoz. Aurrerantzean, onbidean egingo genuen lan.



Urte hartan, Santa Katalinan berritze lanak egiten ari ziren, eta halako batean luzaroan bertan egondako XVIII. mendeko gotorleku militarra hondatu egin zuten, haren ordeaz orain ikusten den hormigoizko eta altzairuzko baranda jartzeko.

Non zeuden ezagutza, erakundeak eta teknikariak, hain astakeria galanta egin zenean?

Arazoa berez zen larria, baina askoz larriagoa gune horri balio kultural handiagoa ematea zegoenean oinarrian. Ez dago esan beharrik zer adierazten zuen horrek: ezjakintasuna eta eginbide txarra.

Baina orain arte esandakoa ez da txarrena: gure kexen aurrean, zer egingo eta jatorrizko hormaren antzekoa egin zuten, baina zerikusirik ez zuena. Kanoi-zuloa besteletara jarri zuten: itsasora begira barik, barrura, lurrera. Itsasontziak Otoiotik etorriko zirelakoan edo!!! Lehenengo atsekabea.

Huraxe izan zen akabukoa. Horregatik, lagun batzuk batu eta 2011ko ekainaren 27an Atabaka kultur alkarte sortzea erabaki genuen, Lekeitioko eta Bizkaiko ondare historikoa zabaldu eta haren alde lan egiteko. Egunen batean kanoi-zuloa bota egin beharko genuke (hobe jakin ez zenbat balio izan zuen egiteak), eta, jatorrizko harriak aurkituz gero, berregin.

Mahai gainean izan genuen hurrengo proiektua Ondarzabal izan zen. Ez gara askorik luzatuko, baina Atabakatik argi utzi nahi dugu ahalegin itzela egin genuela itsasontzia salbatzeko: azken momentura arte proposatu genituen aukerak (batzuk oso berritzaileak), Lekeitioren itsas ondarearen elementu nagusienetakoak gure artean irauteko. Ezinezkoa izan zen. Laster izango dugu txaluparen hutsunea. Beste atsekabe bat.




Ondarzabal itsasontzia.



Garraitz

Karposmen Zaldia



San Nikolas

3

1

2

Garraitz 25





Lekeitioko Garraitz irla. Marrazkiaren egilea: Jon Zubiaur.

Luze joko luke proiektuaren xehetasun guztiak emateak, eta, horregatik, uste dugu onena dela Alberto Santana Bizkaiko Foru Aldundiko Ondare Etnografikoaren arduradun teknikoarekin batera iazko azaroan irlara egindako bisitaren nondik norakoak kontatzea. Santanarekin batera, Lekeitioko alkate Koldo Goitia, Arantzadiko Alfredo Moraza arkeologoa eta Atabakako lagun batzuk egon ginen.

Egia esan, bisita hori bera egin nahi genuen irlan aurten auzolanean ibilitako guztiarekin eta irlarekiko interesa erakutsi dutenekin. Ezin izan da oraingoz, eta horregatik jarri nahi dugu KURIKen. Badakigu zuzenekoak balio handiagoa duela, Santanaren azalpenak emateko modua aberatsa eta indartsua delako, baina edukia, behintzat, geratuko da eta horixe da garrantzitsua.

Izan ere, Santanak ondo baino hobeto daki zer daukagun eta zelan egin ahal dugun; inork baino hobeto daki eta esan egiten du; berton esaten digu, ideia egingarriak bideratu ahal ditugunoi, eta apurka-apurka herriratzen ahaleginduko gara. Azken batean, gure lanerako gidoia da, ondare historikoa zabaldu eta babesteko asmoa duen elkartearena.

Gure iritziz, Garraitz 25 izena jarri diogun proiektu hau izan daiteke Lekeitiok datozen urteetan landu dezakeen lerro estratetikokoetako bat. 25 hori 2025 urtearekin lotuta dago: urte horretan 700 urte beteko ditu, eta ordurako irla bere onera ekarri eta aztarna arkeologikoak sendotuta egotea nahi dugu, baita inguru natural eta kultural paregabea izatea ere. Irlarena ondo badoa, beste ondasun batzuekin gauza bera egin daiteke, eta sinistuta gaude ondarean eta kulturaren oinarritutako ekonomia bihur daitekeela gure herriaren etorkizunaren ardatz nagusia.

Lazunarritik heldu gara irlara. XVIII. mendean egin zuten, erreka Karraspiorantz bideratzeko eta portuaren erabilera egokia ziurtatzeko. Pinuek hartzen gaituzte lehenengo: tente baina lehortuta daude asko, eta Aldundikoek botako dituzte hilda-koak. Bizia dutenak utzi egingo dira, eta birlandaketa egingo da, pinu biziak bertoko zuhaitz batzuk gehituz (arteak, gurbitzak, ereinotzak, basolibondoak...). Batzuek besterik pentsatu arren, ez dugu ikusten geratzen diren pinu zahar biziak zertan bota behar diren; izan ere, geriza-tokia sortzen dute eta itxura berezia ematen diote irlari.

Arbola hilen eta birlandaketa-planen kontuak oinarri garrantzitsuak dira: zer egin nahi dugun irlan. Gure ustez, bisita erabakigarria izan da, eta gauzak argiago ditugu.

Hasi da azalpenak ematen Alberto: "Garraitz: Lekeitiorako eta Bizkairako ikurra, ikonoa; Lekeitioko beti izan da oinarrikoa Bizkaiko historian, herrikoen ekarpen intelektuala eta hori sasoi bakoitzean garatzen jakin zuelako; baita turismoaren modernitateari ateak ireki zizkiolako ere (ez zuten gauza bera egin Ondarroak, Bermeok...). Horregatik da gaur egun den modukoa eta horregatik eusten dio edertasunari, hirigintza zein natura arloan.



Alberto Santana, Alfredo Moraza eta Koldo Goitia.

Nire ustez, irlan egin dezakegun onena hauxe da: **aztarna eskegiak dituen parke historiko etnografiko naturala, bisitagarria**. Horretarako, oso ondo ikusten ditut aurten egindako lan guztiak. Horiek gehiago ikertu eta sendotu egin behar dira, leku batzuetan “sendatze-teknika” arinak erabilia eta beste batzuetan berritze zientifikoko teknikak (badiara horretan adituak direnak). Ermitaren iparreko aldean, sendotzelanak egin behar dira, dauden zantzuak eta lekukoak kontuan hartuta; hegoaldean, betetze- eta berreraikitze-lanak (berriztatzeko erabiltzen den morteroaz osatuta eta hormari tentsiorik sortu gabe). Azken batean, guztia berritzu hormaren kotaraino. Zuzendaritza-lanetan aditua behar da, baina lana bera edozein igeltserok edo harginek egin dezake arazo handi barik.

Hormaren aurrean jarri da. Albertok argi du lehenengo lerrorainoko lanak (harri eta lauz txikiko mailan amaitzen da) herri xeheak egindakoak direla, hau da, orduko lekeitiarrek; eta oso ondo, gainera. XV. mendean izango zen: “Hor daude harriboloak, oso ohikoak gotiko beranduko sasoiari”.



Santana ermitaren hormaren aurrean.

Goiko aldea geroagokoa da, XVII. mendekoa: frantziskotarrek egingo zuten orain ikusten duguneraino, ez hain ondo (erre egin zela ikusten du): “Harri erreak daude horma luze honetan, zati zaharrean. 1,80 metro ingururaino ermita da; hortik gora, komentua”. Gogorra dezagula diosku, 1795ean egindako bisitan, arduradunak berak agindu zuela komentua konpontzeko edo desegiteko eta santuak gordetzeko lapurretatik salbatzearren.

“Bai, ermita lekeitiarrek egingo da, eta ondo, gainera” dio berrero. “Esandakoa: behin hegalak berregindakoan, horma guztia sendotu goiko aldean, bertoko harea eta karea erabilia, urari bidea itzeko. Oraintxe konturatu naiz: kan bi falta dira; lau hauen gainean jarrita egongo zen atea”.

Ea zergatik frantziskotarrak galdetzen dio baten batek. “Ez dakigu, baina komentu bat desegiten zutenean, leku elkorrean egon behar izaten ziren denbora batean. Sasoi hartan, Izarokoa bertan behera utzi zuten. Horregatik etorri ote ziren hona?”.

Irla Lekeitioko lazaretoa zen, baina ez derrigorrez lepra-etxea. Izurriteak izaten ziren beti, hori bai, baina gehiago peste bubonikoa (beltza, kolera...). Bertan kutsatutakoak ez; Flandesen eta beste leku batzuetan hartuko zituzten gaixotasun horiek itsasgizon lekeitiarrek, eta bertora heltzen zirenean, irlara bidaliko zituzten. Izan zen 1558an Getarian halako kontu bat: ontzia aztertu eta zerbait sumatzen bazuten, irlara; gero, medikua eta zaintzak. Bai, Garraitz Lekeitioko lazaretoa izan zen. Gauza bera gertatzen zen New Yorken, Menorcako Mañonen...

Abiada hartu du, eta zaila da azalpen guztiei jarraitzea: “Hemen daude ermitaren hiru aldareak: San Nikolas, San Sebastian... eta, seguruenik, San Frantzisko. Ordenaren santuak presbiterioa izango zuen, alde er-

lijosoa eliztarrengandik banatzeko. Zorua ez da ikusten; lurra estalita dago orain, baina adreilu etzanez osatutakoa izango zen, arrain-hezurduraren antzera jarria (Sienan moduan). Hortxe azpian egongo da dena, 40-50 cm-ra edo. Dena azalerraten duzuenean, horrelako adreiluak beharko dituzue (Levante aldean egiten dituzte).



Ermitaren iparraldeko horma.



Eremu militarerra sartzeko atea.

Aurrera goaz berehala. Eremu erlijiosotik militarerra sartu gara. “Hara non dauden atearen beheko hegaletako oinarriak: ate sendoa, burdinazko euskarriekin. Eta horma ere sendoa. Seguruenik, hormaren goiko aldean, ibiltzeko bidea izango zuten soldaduek. Donibane-Garazikoan moduan”. Ingelesak ondo gordeta dituzte sasoi hartako gorabeherak. Borroka ugari izan ziren irla zaintzen zeuden frantsesen eta Lekeitio askatzera zetozen ingelesaren artean. O'Reilly teniente ingelesaren kroniketan agertzen denez, medailak eman zizkieten soldadu eta ofizial batzuei. Kontatzen du baita gauerdian eta marea erdian heldu zirela irlara eta kanporatu egin zituztela frantsesak, nahiz eta hiru kanoiko bateria eduki. Pelikulakoa dirudi kontaketak. Behin irla hartuta, 20 milia ingurura zegoen itsasontzi nagusiari jakinarazi zioten irla hartuta zeukatela, baina defendatzea zaila zela. Ofizial nagusiak, orduan, irla uzteko agindu zien eta kanoiak itsasora botatzeko, hurrengo bueltatuz gero, arazorik izan ez zezaten. Pasadizo horretan ez dago milizia lekeitiarren berririk, Getariakoena edo Gipuzkoakoena baino. Bai, bertokoek lagundu zuten, hain zuzen ere, mendexarrek, artilleria idien bitartez mugitzeko. Horixe da 1813ko gudaldiaren pelikula, Ingalaterrako artxiboetan jasota dagoena.

Eraikin hauek 1740ko ingeniari militarren araberakoak dira. Orduan, kanoikadek kilometro bat inguru hartzen zuten, kalibrearen arabera (22/24 cm-ko bolak). Tontorreko gotorlekuan harrizko hormaren metro bat falta da gutxi gorabehera; barrurantz jausita dago, lurraren itxuran igarri daitekeenez. Estalitako gunek ere sumatzen da, haitzezko horma bi erabilita egindakoa. Egia esan, erdi lurperatutako harri-bolo landuak ikusten dira.

Alfredok ondo dakien moduan, gotorleku hauek Bizkaiko Jaurreriko Batzar Nagusiek erabaki eta antolatzen zituzten; gatazkaren garrantziaren arabera, gehiago edo gutxiago hornitzen zituzten (bolbora, munizioa, tropak). Adibidez, Konbentzio Gerran (1795), frontea ez zen egon itsasaldean. Soldadu frantsesak Markinatik etorri ziren, eta ordukoxea da Lumentzako bateria: ez dago itsasora begira, barrura baino”. (Beste proiektu bat Atabakarentzat: Lumentza tontorrera joan, sastraka garbitu... Batzuetan latsa sentiarazten du Lekeitio inork zergatik ez duen hor ezer egin, bertako ikuspegi zoragarria erakusteko. Zer egingo diogu, bada!).



Tontorreko gotorlekuaren aztarnak.

Aurrera goaz berriro. Hurrengo eraikinera heldu gara, goarniziora. “Hementxe biziko ziren soldaduek; hornidurak ere hementxe gordeko zituzten. Tximinia falta da”. Uste du zorua metro bateko sakoneran egongo dela eta aztarnak agertuko direla. Hain kezka handia sortu digun hegoaldeko harrizko zutabea dela eta, berak argi du eraikinaren goiko aldera igotzeko zatikoa dela. Zati horretan, gora (ganbarara edo) igotzeko arrapala egongo zen. Ikus daitekeenez, arrapala sendoa zen, pisu handiari eusteko modukoa. Ura upeletan batuko zuten; ez da derri-gorrezkoa ur-biltegia egotea. Iparraldeko haize-zuloaren ingurua (lizarren ondoan dagoen “geiser” antzekoa) presoentzako kartzela izango zen, bere iritziz (hamar-hamabost inguru). Zentzuzkoa da goarnizioaren ondoan kartzela estalia egon zitekeela pentsatzea. Presoak lekeitiarrak edo ingurukoak ziren; irlan bertan lan behartuak egiten zituzten (hormak eta behar zen guztia). Emazteek edo familiakoek emango zieten jaten (atunopilak eta); ezinezkoa da soldaduek eurek horrelakorik egitea. XVII. mendeko ohiko presoentzia da. Lau bat soldadu egongo ziren; presoak ere bai; eta boluntarioak. Komunik ez da sumatzen, baina egongo ziren...



Kuartela edo guarnizioa.

5



Bolborategia.

Muturrera jo dugu, bolborategira. Alfredoren berbetan, Euskal Herrian dagoen bakarra; harribitxi historikoa. Egoera onean iraun du. Alberto ere bat dator Alfredorekin. Barrura sartu eta kupula faltuan jarri du arreta: “Horixe da haitzari etekina ateratzea!”. Margoren bat ere egongo dela dio. Eta hala da: gure elkarteko lagun Jon Zubiarrek erreparatu zion, baita argazkia atera ere. “Garrantzitsuena da ondo iraun duela, eta orain zaindu egin behar dugu”. Kanoien gunera heldu gara. Alfredok zein Albertok tramankulu horien nondik norakoak azaldu dizkigute: no-raino heltzen ziren bolak; arbelezko zoruaren gainean jarrita zeudela, errazago erabiltzeko;... Egia esan, auzolanik ez dugu egin hemen, nahiko txukun dagoelako. Baina lekua ikusgarria da...

Amaitu dugu ibilbidea. Bueltarakoan, Albertok dio: “Arduratuta nago bidearekin zer egingo duzuen. Txukundu bai, apurtxo bat egokitu, alboak garbitu... Enbor hilak erabiliko ditugu. Garrantzitsuena hondatzea geldiaraztea da. Jarraitu aztertzen, ikertzen. Erabaki neurri sendoak eta jarraiak 2025era begira; herriratu lana, herriratu irla interes handiko tokiak izan daitekeela, betiere jatorrizko balioak (natura, paisaia...) galdu barik. Apurka-apurka, baina eten barik”.



Boluntarioak auzolanean.

6



Isla muturreko bateria.





Mendieta ontziola egoera tamalgarrian.

Eta ezin isildu, ezin. Mendieta ontziola. Ederra itxura duena! Euskal monumentu historiko izendatuta dago, eta ia jaustekotan. Atabakan konbentzituta gaude ezin garela besoak gurutzatuta egon, nahiz eta arazo administratiboak ugariak izan. Uste dugu erakunde guztiek (Udala, Diputazioa, Jaurlaritza, Estatua) bat egin behar dutela monumentua berroneratzeko. Neurri batean, eroso daude bata besteari errua botatzen, baina ezin da geldirik egon. Borondatea behar da.

Atabakatik ekin egingo diogu: monumentu historikoa da; Lekeitioren etorkizunaren zati bat da, garrantzitsua, asko eta asko oraindik konturatu ez arren. Zerbait egingo dugu. Batetik, zuzeneko ekintza bat: beste auzolanegun batean, pieza garrantzitsuenak sendotuko ditugu, ingurua garbitu, herritarrak kontzientziatu. Bestetik, administrazioen utzikeria salatu, euren arreta lortzeko. Eurak dira ondarea babesteko arduradunak, eurek izendatu dute monumentu.

Honetan ere badu zer esanik Albertok. Berak proposatu zuen maila teknikotik monumentu izendatzea 1984an.

Azken hausnarketa bat, irla dela eta. “Denak ez daude ados irlan egiten ari zarenarekin. Heldu zaigu kritikaren bat edo beste, ez zuzenezkoa”. Batzuk beldur dira irla ezagunegi egiten bada, aztarnen kalterako izan daitekeela (harriak eraman edo antzeko astakeriak). Gu geurera. Hori egiten duenaren ardura da.

Normandian, Eskozian, Galesen, Fiorentzan... ez da horrelakorik gertatzen. Hemen zergatik? Eskegitako aztarnen parke etnografikoa egitea lortu behar dugu. Bestela, inork ez du jakingo laster irlan XV. mendean ermita egon zela, XVII.ean frantziskotarren komentua eta lau mendetan zeharreko hainbat sasoitan gotorlekua. Huntzak dena jango du”.

Ados egon gara. Horregatik, Atabakatik zuhurtziaz jokatu nahi dugu, baina horrek ez du esan nahi dena zegoen-zegoenean utzi behar denik. Erakundeekin batera lan egingo dugu, baita teknikari adituekin ere. Lekeitio denboretara egokitzen dela erakutsi nahi dugu eta argi daukagu proiektu honek asko lagunduko duela Lekeitio KULTUR PAISAIA arloan erakargarratasun handiena duen ITSAS HERRIA izaten. Gu ez gara adituak, baina herritar arduratuak bai. Ez dugu ezagutza hutsean geratzea ondarearen arloa; parte-hartzea bultzatu nahi dugu, beste herritarrekin eta erakundeekin batera.



Eta hortik, UNESCOra, izendapena lortu arte.

Hurrengo pausoak: aurten, 2016an, Paisaiaren Ekintza Plana amaituko dugu (PEP); bagabiltza horretan —Jaurlaritzak onartuta dauka egitasmoa—. Esparru egokia da aurrera begirako lanak zehazteko. Teoria zati handia du, baina garrantzitsua da irizpideak ezartzeko. PEP horren barruan, Garraitzena unitaetako bat da. Eta aukera hori aprobetxatuko dugu behin betiko proiektua eztabaidatu eta erabakitzeko. Partehartzea bultzatuta, jakina.

PAISAIA IBILBIDEA izango da orain hasitako lanaren fruitua: irla, Mendieta, Lumentza, Santa Katalina, portua, Lea... ezagutzeko bisita gidatuak.

Bisitaren ondoren, konbentzituago gaude irlak zein balio handia duen; zuzeneko ekintza erabilita, zein lan txukuna egiten ari garen; zein egokia izango litzatekeen aztarnak sendotzea eta berroneratzea, aztarna eskegi erako itxura emateko. Azken batean, Garraitz goi-mailako parke historiko-etnografikoa izango dela, jatorrizko balioei eutsiz. Eskozian moduan, aztarna eskegi bisitagarria.

Albertok berriro: “Kasu bakarra ezagutzen dut Bizkaian, erakunde guztiek proiektu batean batera lan egin dutena: Gaztelugatxeko San Juan. Eta Garraitz haren bikia da.

Zuek ekin; nik lagunduko dizuet. Kanpotik begiratzen digutenean, geure onena ematen dugu”.

Horregatik, animatu gure elkartera etortzen, gurekin parte hartzen. Ez dugu konpromiso handirik eskatzen. Azken batean, **ondarea denok gara; lekeitio ondarea da; ondarea etorkizuna da** ideiekin ados egotea baino ez.





KAIKO HITZA

Zuzendaria: Aitziber Laskibar Lizambar. Argitaratzailea: Lege gordailua.

OSTIA

IAIA MAITE

Garraitz uhartea, eta bertara joateko bidearen hasiera. Eskuineko aldean Lea ibata ikusi daiteke, eta ezkerrean Karitauri Itsasoa. ANDER GARTZA

Altxorra gordetzen duen irla



iHOLA! VIAJES



Hola aldizkaria.
"Hola Viajes" 18. zenbakia, 2013ko uda.

50 EXCURSIONES ÚNICAS
de fin de semana por la
ESPAÑA más bella y **DESCONOCIDA**



